

IKASTURTEA/ CURSO ACADÉMICO 2026/27

IKASGAIA/ASIGNATURA:	ZAINTZA ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOA	KURTSOA/CURSO:	4. maila
MODULUA/MÓDULO:	Berrikuntza	KOKAPENA/UBICACIÓN:	8. seihilekoa
ESPARRUA/ÁMBITO:	---	IRAUPENA/DURACIÓN:	150 h
IZAERA/CARÁCTER:	Derrigorrezkoa	KREDITUAK/CRÉDITOS:	6 ECTS
KODEA/CÓDIGO:	28479	HIZKUNTZA/IDIOMA:	Ingelesa
PLANA/PLAN:	2024	IRAKASLEA/PROFESOR:	Roberto Altzerreka Etxeberria
AIPAMENA/MENCIÓN:	---		

HELBURUA/OBJETIVO:	Laburpen-lan bat egitea gai tekniko edo zientifiko bati buruz, enpresetan sortzen diren galderei dagokiena. Era berean, ikerketa-lan batean lagun dezake.
---------------------------	---

IKAS-PROZESUAREN EMAITZAK/RESULTADOS DE APRENDIZAJE

RC1 - Ingeniaritzaren berezko ohiturak eta trebetasunak garatzea, pentsamendu sistemikoa, iniziatiba, sormena, lankidetzak, komunikazioa eta kontsiderazio etikoak bezalako trebetasunak erabiliz. MOTA: Konpetentzia

RC8 - Enpresa baten arlo desberdinak martxan jartzea eta zuzentzea, erakundearen eta haren jardueren ikuspegi orokorrarekin, berrikuntza eta hobekuntza-aukerak kontuan hartuta. MOTA: Konpetentzia

RCO6 - Produktu, prozesu edo zerbitzu berriak hobetzeko edo lortzeko prozedura eta teknika zientifiko-analitikoak ezagutzea, hauek patentatzeko, ekoizteko edo merkaturatzeko. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RCO8 - Prozesu eta produktuen garapen, hobekuntza eta berrikuntzan ezagutza teknikoak eta zientifikoak eskuratzea, enpresaren benetako erronken aurrean. MOTA: Ezagutzak edo edukiak

RHE1 - Informazio teknikoa hainbat hizkuntzatan ulertzea ingeniartzako berrikuntzaren arloan, egoera berrietara egokitzen jakiteko eta

ezagutzak komunikatzeko eta transmititzeko gai izateko. Mota: Espektror zabaleko trebetasunak

RHE2 - Aldaketa eta berrikuntza kudeatzea, beharretara eta eskarietara egokituz, egoera berriak gidatuz eta eraginez, eta langile guztien inplikazioa erraztuko duten ekintzak ekarri, ekintzek eta erabakiek epe ertainean duten eragina aztertuz. Mota: Espektror zabaleko trebetasunak

RHE5 - Berrikuntza-ingeniaritzaren ezagutzak aplikatzea, erakundearen estrategiari modu proaktiboan laguntzeko, negozioaren ikuspegi berritzaile baten bidez, eta ingurumen-jasangarritasunarekin eta genero-berdintasunarekin konprometituta. Mota: Espektror zabaleko trebetasunak

RHT5 - Berrikuntzarako testuinguruak sortzea, berrikuntza-sistemak irekitako aukerak aprobetxatuz. Mota: Tituluaren trebetasun espezifikoak

EDUKIAK/TEMARIO

1. Lurralde-lehiakortasunaren esparrua. Lehiakortasunaren eta berrikuntzaren dimentsioak. Lurralde-lehiakortasunaren azterketa adierazleetan oinarrituta.
2. Zientzia, teknologia eta berrikuntzako politikak: berrikuntza-politiken bilakaera Euskadin. ZTBP 2030 eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
3. GJHak, etorkizuneko joerak eta teknologia berrien eragina.
4. Zer da zaintza zientifiko teknologikoa? Funtzionamendu-eskema. Iturriak (Non bilatu?) eta Alertak (Zer bilatu?).
5. Zaintza zientifiko teknologikorako tresnak. Doako oinarritzko tresna, Feedly. Informazio-iturriak
6. Alertak. Google Alerts. Alertak sortzea, konbinazio logikoak.
7. Bilaketa aurreratua.
8. Biltegiak eta bilatzaileak (Google Scholar, arxiv,...).
9. Zaintza-buletinak sortzea eta zabaltzea.
10. Posterrak egitea eta aurkeztea

IRAKASKUNTZA MOTA/TIPO DE DOCENCIA

	M	CP	PL	PO	SP	D
Aurrez aurrekoak (orduak)	20	7,5	0	0	32,5	0
Lan pertsonala (orduak)	20	12,5	0	0	57,5	0

M: Magistrala / CP: Gelako ariketak / PL: Laborategiko praktikak / PO: Ordenagailu bidezko praktikak / SP: Seminario-proiektuak / D: Duala

BALIABIDE DIDAKTIKOAK/MÉTODOS DIDÁCTICOS

- X Irakasleak azalpenak emateko eta/edo erakusteko saioak.
- X Irakaslearen laguntzarekin gelan egindako ariketak.
- X Aplikazio praktikoa, bakarka edo taldean ariketak, simulazioak eta esperimendazioak eginez.
Moduluaren bidez eskuratu beharreko gaitasunen adierazgarri den kasu "integratibo" baten analisisa

BIBLIOGRAFIA/BIBLIOGRAFÍA

- Berrikuntza Proiektuak irakasgaiaren apunteak
- Lan koadernoak
- Egin beharreko lanaren arabera

EBALUAZIO METODO ETA IRIZPIDEAK/MÉTODOS Y CRITERIOS DE EVALUACIÓN

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matricula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta

lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere (adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean). Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

X Etengabeko ebaluazio-sistema

X Azken ebaluazio-sistema

OHIKO DEIALDIA/ CONVOCATORIA ORDINARIA

ETENGABEKO ebaluaziorako irizpideak:

0 % Idatzizko eta/edo ahozko proba

0 % Praktiak egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea

100 % Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak

0 % Dualean jarduerak eta/edo proiektuak egitea

Argibideak/Aclaraciones:

- Etengabeko ebaluazio bost elementutan oinarrituta egingo da:
 - Taldeko zaintza-sistema % 20
 - Banakako zaintza-sistema % 30
 - Talde-proiektuaren edukiaren aurkezpena % 30
 - Infografia % 20
- Gaingaitzen ez bada, entregagaiak/proiektuak jasotako orientabideen arabera errepikatuko dira.
- Ahozko aurkezpen guztietan ez agertzea, behar bezala justifikatutako arrazoirik ezean, 0 izango da ebaluazio atal horretan. Atal hau eteten bada, irakaslearekin adostu beharreko ikastaroko talde guztiek egindako proiektuei buruzko lan gehigarri bat egingo da.
- Irakasgaia gaingaitzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira elementu guztietan.

AZKEN ebaluaziorako irizpideak:

50 % Idatzizko eta/edo ahozko proba

0 % Praktiak egitea eta/edo haiei buruzko txostena egitea

50 % Txostenak/Entregableak/Ahozko aurkezpenak/Proiektuak

0 % Dualean jarduerak eta/edo proiektuak egitea

- Azken ebaluazio-metodoa hiru elementutan oinarrituta egingo da:
 - Banakako zaintza-sistema % 30
 - Infografia % 20
 - Azterketa % 50
- Gainditzen ez bada, entregagaiak/proiektuak jasotako orientabideen arabera errepikatuko dira.
- Irakasgaia gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira elementu guztietan.

EZOHIKO DEIALDIA/ CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA

Argibideak/Aclaraciones:

- Aurretik azaldutako orientabideen arabera onartu ez den elementua berreskuratuko da.